

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

#### Praktiketako funtzionarioak edo probaldian dauden lan-kontratudun langileak izendatzea

2024ko irailaren 16an, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan praktiketako behin-behineko izendapenak onartu eta argitaratu ziren Arabako Mendialdeko Kuadrillako ediktu-taulan, jarraian zerrendatzen diren lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak amaitu ondoren.

Hori guztia bat dator aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin (ALHAO, 148. zk., 2022ko abenduaren 26koa) eta deialdiaren laburpenarekin (BOE, 93. zk., 2023ko apirilaren 19koa).

Lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketa epaitu duen epaimahaiak proposatutako behin betiko sailkapenak eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa ikusita.

Ondoren agertzen diren presidentzia-ebazpenen arabera, praktiketako funtzionario edo probaldian dauden lan-kontratuko langile hauek izendatu dira, eta Arabako Mendialdeko Kuadrillako lanpostu hauei atxiki zaizkie:

PUNT. PROP. EBZP. ZK.	LANPOSTUA	TALDEA ETA AZPTL.	ESKALA, AZPIESKALA ETA MOTA	PRAKTIKETAN/PROBALDIAN IZENDATUTAKO PERTSONA	IZENDAPEN EBZP. ZK.
34	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko administrari laguntzailea	C2	Administrazio Orokorreko Eskala, Laguntzaileen Azpieskala	Josune Diaz de Antoñana Chasco	45
35	Animatzaile soziokulturala	C1	Administrazio Bereziko Eskala, zerbitzu berezien azpieskala, zeregin berezien mota	Álvaro Albaina Sáez de Viciña	46
36	Artxibozaina % 40	C1	Administrazio Bereziko Eskala, zerbitzu berezien azpieskala, zeregin berezien mota	Esteban Sáenz Anzuola	47
37	Gerente-letradua	A1	Eskala Administrazio Berezia, azpieskala teknikoa, goi-mailako klasea	Álvaro Castillo Cordero	48
38	Sustapen ekonomikoko teknikaria	A1	Eskala Administrazio Berezia, azpieskala teknikoa, goi-mailako klasea	Ana M <sup>o</sup> Beltrán de Heredia Arroniz	49
39	Euskara teknikaria	A2	Administrazio Bereziko Eskala, zerbitzu berezien azpieskala, zeregin berezien mota	Belen Garulo Sáenz del Castillo	50
40	Arkitektoa % 70	A1	Eskala Administrazio Berezia, azpieskala teknikoa, goi-mailako klasea	Javier Lizaso López de Aberasturi	51
40	Arkitektoa % 70	A1	Eskala Administrazio Berezia, azpieskala teknikoa, goi-mailako klasea	Adolfo Gracia Molina	52
41	Arkitekto Teknikoa – aparejadorea % 90	A2	Eskala Administrazio Berezia, azpieskala teknikoa, erdi-mailako klasea	Susana Martínez Argómaniz	53

Izendapenak behin-behinekoak dira, probaldia edo praktikaldia aurreikusten den neurrian, oinarri orokorren 15. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Izendapen horiek ebazpen honen egunetik aurrera izango dituzte administrazio-ondorioak.

Lanpostuak behin-behinean atxikiko dira praktikaldia amaitu arte, deialdiaren 15. oinarriarekin bat etorriz.

Aldi horrek irauten duen bitartean, lan-kontratu finkoko langile eta praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko dituzte beren zereginak, eta dagozkien ordain-sariak jasotzeko eskubidea izango dute.

Praktikaldia amaitu eta gainditu ondoren, hala badagokio, karrerako funtzionario eta lan-kontratuko langile finko izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin edo promesa egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publikotasunaren ondorioetarako, ebazpenen zerrenda osorik argitaratu da erakundearen ediktu-taulan, eta interesdunei jakinarazi zaie.

Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke hilabeteko epean. Epe hori igarota, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da jarri, hargatik eragotzi gabe berrikusteko errekurtso berezia jartzea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Santikurutze Kanpezun, 2024ko irailaren 16an

*Presidentea*

**EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ**